

# Gure belaunaldiaren leihotik

**Nekane  
Zinkunegi  
Barandiaran**

**H**irurogei urte igarota, ETA erakundeak amaitutzat eman berri du ibilbidea. Batzuk umezurtz sentituko dira, hutsunea utziko die, eta halaxe aitortuko dute. Beste zenbaitek datorren eran hartuko dute, bukatu behar zuela pentsatuta. Asko izango dira bukatzeko moduarekin konforme ez daudenak, izatez, modua baino, bukatzea bera axola zaielako, komeni ez zaielako. Zenbaitek, gehiegi ezagutu ez arren, nostalgiaz biziko du, kontatu diotenaren araberako mitoa eraiki duelako. Izango da ilusioz hartuko duenik ere, ziklo aldaketa zerbait berriaren seinaleztat duelako.

Laurogeita hamarreko hamarkadan jaiotakook euskal gatazka izendatu den horren aldaera bat baino gehiago ezagutu ditugu. Jardun armatuaren presentziarekin bizi izan gara: umetan oso ongi ulertzen ez genuena estrategia baten barnean kokatzera eta argudiatzera eraman gaitu gaztetako militantziak, adibidez. Horren baliagarritasunaz zalantza egiteko aroa etorri denean, berriz, eztabaidatu, arrazoitu eta ulertu dugu estrategia politiko soilerako urratsa zela egokiena. Eta horren pedagogia egitea zegokigula.

Belaunaldi berak ikusiko du nola amaituko den aro bat, ia naturaltasunez, ia ezinbestean. Biziko garenaren herena inguru markatu du aro horrek. Aurreko hamarkadetako zauriak geure azalean ere sentitu ditugu. Bide horretan, ordea, jendearekin egin dugu topo. Bere bizitza erabat baldintzatzeko zalantzarik egin ez zuen jendearekin. Gurasoek zalantzarik egin ez zutelako baldintzatuta jaio ziren adinkideekin. Eta baldintzatuta bizitzetik ikasi dutenari esker, bestelako etorkizuna eraiki beharraz konbentzituta daudenekin. •

# Aro berria

**Joxean Agirre**

**T**rantsizioari begira bi estrategia nagusi eman ziren ezker abertzalearen baitan, Argala eta Mario Onaindia. Elkarren artean xake partida gisako bat jokatu zuten urte horietan. EEk “Egin” galdu zuenean, esate baterako, partida horretako pieza nagusi bat galdu zuela aitortzen du bigarrenak. Eta 1978ko abenduan Argala hil zutenean (Carrero Blancoren kontrako atentatuaren urtemugan hain zuzen), Onaindiak ere erreferente nagusi bat galdu zuela dio bere oroitzapen liburuan, eta, Argalari buruzko kontsiderazio luzeen buruan, hau dio: «Konbentzituta nengoen EEren eta ETA militarren

estrategiak punturen batean berriro elkartuko zirela eta gai izango ginela giza legez eta kiroltasunez, historiak hala frogatzen bazuen, besteak arrazoi zuela aitortzeko». Bi estrategia kontrajarri horiek puntu batean egin dute bat: EEk ibilbide labur baten buruan PSEren uretan urtuta bukatu zuen. Erakunde armatuak ibilbide luzeagoa egin du, baina asteburu honetan desegin edo disolbatu du bere burua. Badakit bakoitzak utzi duen emaria ezberdina dela: Argalaren estrategiak independentziaren aldeko bloke bat indartu du beharbada, baina ez bidean samin eta albo-kalte handiak utzi gabe.

Aro zail eta gogor bat bukatu da, baina hastera doana ez da kezkarik eta galderarik gabea: ezkerreko bloke subiranista bat indartu behar al da, EAJ alde batera utzita, ELAk aldarrikatzen duen moduan? Edo EAJrik gabe ezingo dela gehiengo subiranistarik lortu pentsatu behar al dugu, EH Bilduren bidetik, eta itxaron alderdi hori edo bertako kideen multzo bat krisiren batek edo kataklismoren batek erradikalizatzen dituen arte? Edo Estatuaren birzentralizazioa izango al da kataklismo hori? Ez al dira bi bideak bateragarriak? Eta beste mila galdera. •